

Josemari Velez de Mendizabal

Agurain estiloa eta gainirabaziak

P

aseatzen ari nintzen Iñaki Berzarekin Aguraingo kaleetatik “Herri honek etorkizunik baduela uste al duzu?” galdetu nionean. Itauna egitean Gasteiz hiriburuak gazteengan eduki dezakeen erakargarritasun indartsua nuen gogoan, indartsuegia 4.500 biztanle inguru izango dituen herriko gazteentzat.

Aguraingo alkateak besotik heldu eta San Juan elizako atze aldera eraman ninduen. Bertatik, hiribildutik berrehun bat metrotara eraikitzen ari den urbanizazioa erakutsi zidan: “Begira; bostehun etxe eraikitzen ari gara; 90 metro karratu, garajea eta ganbara. Zenbatetan uste duzu?”. Erantzunarekin ez nuela asmatzen ikusita berak eman zidan zifra: hemeretzi milioi pezeta VPOkoak, eskaintza askekoak 25 milioi eta familia bakarrekoak 34 milioi.

Nire harriduraz jabetuta, etxebizitzaren preziorako formula azaldu zidan: “Lur expropiazioak egin behar izan dizkie Udalak jabeai, horrek suposatzen duen kostu pertsonalarekin. Emaitza begi bistan dago. Horretarako aukeratu ninduten alkate, ezta? Herrikideei irtenbideak emateko. Eta herriko bostehun sendi berri osatu ahal izango da inguru horretan. Ba al du etorkizunik Agurainek?”.

Agurain estiloaz hausnartzen itzuli nintzen Arrasatera. Helburura bitartean beste zenbait herritatik igaro behar izan nuen, eraikuntzaren sukarra sufritzen ari diren horietakoak, hain zuzen, eta ezin nion konparaketak egiteari utzi izan. “Nola da posible Agurainen prezio horiek eta –nire itzul bideko hiriak bakarrik aipatzearen– Gasteiz, Eskoria-tza, Aretxabaleta eta Arrasateko etxe berri batengatik 60, 80 eta 100 milioi pagatu behar izatea?”. Materialen kostuak, obren goi mailako amaierak, zergek eta abarrek justifikatzen al dute diferentzia lotsagarria? Ezta inondik ere! Zerbait gehiago dago Agurainen eta aipatu herri horien gisakoen arteko prezioetan. Eta



DANI BLANCO

zerbait hori, lurraren gaineko kudeaketa estilo diferenteak dira. Non geratzen dira, horren kariaz aldean egon daitezkeen 50-60 milioi pezeta horiek?

Gaizki ulertutako garapenaren inguruko mentalitateak hazkundearen fetitxismoa ekarri du. Itzela da nola sortzen ari diren gure herrietan auzo berriak, neurri gabe, planifikaziorik gabe, tokiko agintariak liluraturata bide daudelarik euren herrietako hedapen basatiarekin. Zentro komertzial erraldoiak, erresidentzia gune izugarriak –bai, etxe elkarri atxikietarako zaletasun ez iraunkor horretaz ari naiz– aplikazio zalantzarriko azpiegitura zementatuak eta abar luze batek eraman gaitu kaos urbanistiko gizatasun gabe batera, gure ingurua mende luzetarako hipotekatuta utzirik. Eta ez nauzue mundu bukolikoaz amets egiten duen hiritarra!

Gure gizartea muga ulertezinetaraino kontsumista bihurtu da eta hori garbi ikusi dute eraikuntzako enpresek. Udaletako diru premiaz jabetu diren moduan, enplegatuen kopurua etenik gabe handitzen ari diren toki korporazioen hileroko ordain beharra gero eta potoloagoa baita. Gai dira enpresa horiek –galdetu bestela Arrasaten– berrehun etxebizitzako auzo duin oso bat desagertzea planteatzeko, orube berean lauhun etxe berri jasotzea uzten bazaie. Hori bai, berrehun kaltetuei euren espazioa itzuliko diete –eta igogailua oparia! Eskerrik asko!– eta obrek dirauten bitartean berrehun sendi horiek

beste etxe batzuetan kokatuko dituzte. Hainbeste etxe huts al da inguruan? Orduan, zertarako berririk? Agurain estilo-ko prezioak aplikatu bagenizkie etxe horiei, 10.000 milioi pezeta ateratzen zaizkit, gutxienez, gainirabazietan.

Hiritarrok hainbeste burugabekeriaren aurrean zarpailtzen ari gara. Erreakzionatzeko ahalmena galdu dugula dirudi. Horretaz ari dira baliatzen, tamalez, esparru politikoan agintzeraino iritsi diren eraikuntza sektoreko enpresak. ■

Hiritarrok hainbeste burugabekeriaren aurrean zarpailtzen ari gara.

Erreakzionatzeko ahalmena galdu dugula dirudi. Horretaz ari dira

baliatzen, tamalez, esparru politikoan agintzeraino iritsi diren eraikuntza

sektoreko enpresak